



4 OINATZ

Leitzarrea eta Harriaren museora bisita egingo dute

Oinatz taldeko lagunek Leitza aldera egingo dute irteera, otsailaren 24ean, igandean. Oraingoan, Leitzalarreko paisaiak ezagutuko dituzte, hala nola, monumentu naturala izendatua izan zen Izaetako izaidia. Honetaz gain, Iñaki eta Inaxio Perurenak osatutako "Peru-Harri. Harriaren museoa" ere bisitatuko dute. Bertan herri-kirolen eta harri jasotzearen historia, harrirekin egindako eskulturak edo Perurenatarren harrien erakusketak ikus daitezke. Ointzekoek herritar guztiak animatu nahi dituzte parte hartzera.

5 ERREPORTAJEA

Enara Fernandezek bikain hasi du eski denboraldia

Enara Fernandez Campo herritarrek B2 mailako Kataluniako eski txapelketa irabazi zuen lehengo astean. Lasarteoriatar gaztea IK-ONCE taldearekin lehiatzen hasi zen iaz eta bere mailako irabazlea izan zen. Bere gida herrikoa da, Iraitz Etxarri. Ongi moldatzen dira elkarrekin eta asteburu honetan kopako beste lehiaketa dute, Ezcaray-n.



Ikastetxeetako guraso elkarteetako lehendakariak, udal idazkaria, Pablo Barrio alkatea, Boris Nogales Euskara zinegotzia, Ttakun K.E. eta AEK-ko arduradunak izan ziren sinaketan.

Euskararen erabileraren alde

Ttakun-ekin, ikastetxeekin eta Munterri-AEKrekin akordioak sinatu dira

Lasarte-Oriako Udalak gure herrian 2012-2013 ikasturtean euskararen erabilera sustatzeko sei hitzarmen sinatu zituen atzo. Era honetara, Ttakun kultur elkarteak, lau ikastetxeek eta, berrikuntza gisa, Munterri-AEK euskaltegiak antolatutako hainbat ekintza diruz lagunduko ditu Udalak.

Pablo Barrio alkateak Boris Nogales Euskarako Batzordeko lehendakariak lagunduta, sei hitzarmen sinatu zituen atzo Lasarte-Orian euskararen erabilera sustatzeko.

Udaleko ordezkariak harro azaldu ziren, egoera ekonomiko zail honetan 231.000 eurotik gorako aurrekontuarekin hitzarmen hauek sinatu ahal izateagatik, eta are gehiago, beste herri askotan lortu ezin izaten den herriko euskalgintzaren eta Udalaren arteko elkarlan ereduari eusteagatik.

Ttakun kultur elkarteak

Lehendabiziko hitzarmena, Ttakun Kultur Elkarteako Tomas Arrizabalaga lehendakariarekin sinatu zen.

Honi esker, Ttakunek 2012-13 ikasturtean hitzartutako egitasmoetarako 174.306,41 eurotako diru-laguntza du.

Hitzartutako programak hiru multzotan daude banatuta. Alde batetik, multzo nagusia haurren eta gazteen aisialdia euskalduntzera zuzendutako programak dira: udako txokoak, gazteentzako kanpaldiak, Amaraun eta Gazte klubak, Kuadrillategi eta LMLK programak; besteetik, Txintxarri aldizkaria dago, eta azkenik, Solaskide-solasbide, bertso-eskola eta helduen aisia euskalduntzea helburu duen Abaraska programak daude.

Ikastetxeak

Bestalde, herriko lau ikastetxeetako Guraso Elkarteetako lehendakariarekin ere hitzarmenak sinatu ziren.

Sasoeta ikastetxeko Buruzpe guraso elkarteak Pello Sanchez Cuesta lehendakariarekin eta Institutuko Kaxkarro guraso elkarteak Juan Jose Martin Gonzalez

lehendakariarekin hitzarmen bana eta Landaberri ikastolako guraso elkarteak Joxe Sarobe lehendakariarekin bi hitzarmen, bata lehen hezkuntzako ikastetxeko programekin eta bestea bigarren hezkuntzako dagokiona.

Boris Nogales Euskara Batzordeko lehendakariak jakinarazi zuenez, "Udalak eta ikastetxeek hasiera-hasieratik lan egin dute elkarren eskutik gure herriko haur eta gazteen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko eta euskaraz hitz egiteko ahalik eta erraztasun eta ohitura gehien lor dezaten".

Diruz lagundutako programen artean, ikastetxeetako Irakutrezin, Esazu eta Irintzi aldizkariak daude, pertsonaia ezagunen bisitak, eskola-orduz kanpoko jarduerak euskalduntzeko "Lagunarteko hizkerarekin jolasean" programa edo "Gu ere bertotan" programa bezalakoak daude.

Lau ikastetxeekin sinatutako hitzarmenek 44.318,85 eurotako aurrekontua dute.

Hitzarmen berria

Euskara Batzordeko lehendakariak adierazi zuenez, urte

askoren ondoren, Munterri-AEK-rekin hitzarmena adostu du Lasarte-Oriako Udalak. "Kosta egin da, baina bi aldeetatik egin da adostasuna hurbiltzeko ahalegin bat eta azkenean aipatutako hitzarmenean gorpuztu da azpimarratutako elkarlan hori".

Era honetara zenbait programari laguntza emango die Udalak: herriko ikastalde jakinei zuzendutako ikastaroak, "Askatu mingaina!" programara, irakurzaletasuna sustatzeko programa eta Korrika 18ko ekintzak.

Era berean, bi euskaltegi-tako beka sistema berdindu dela ere jakitera eman zuen Boris Nogales Euskara zinegotziak.

Mertxe Mugikak AEK-ko eremuko arduradunak eskerak eman nahi izan zizkion Udalarari, "Hitzarmena irakasleen lanaren aitopena da. Gainera, pozgarria da Korrikarako diru-laguntza ematea, baita beka sistema parekatu izana ere".

Guztira, 12.460 euroko diru-laguntza da Munterri-AEK-rekin hitzartutakoa.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua
Solomoa baratxuritan



Tripakiak- Saltxitxak
Etxeko txorizoa

Basurde burua
Baserri pateka

Txistorra

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

BERTAKO FABRIKAZIOA

UDAL BATZARRA

Enplegu batzorde informatibo berezia sortuko du Udalak

PSE-EEK eskatutako Enplegu Mahai berriaren orde, orain arteko batzordeaz baliatzea onartu zuten Bildu, EAJ eta Plataformak asteartean

Enplegua jorratzeko batzorde berezia sortzearekin batera, Alzheimer gaixotasunaren eta Saharako egoeraren inguruko bi erabaki izan ziren garrantzitsuenak Lasarte-Oriako udal ordekariek asteartean egin zuten otsaileko ohiko batzarrean. Hiru proposamen onartu ziren: bate-tik, Lasarte-Oriako hiria Alzheimerren arazoarekin bat egiteko eskatzen zuena; bestetik Mendebaldeko Saharan egiten diren giza eskubideen aurkako erasoak salatu eta sahararren autodeterminazio eskubidea eskatzen zuena, eta, enplegua sustatzeko PSE-EEK aurkeztutako proposamenari alternatiba gisa, Bilduk aurkeztutakoa.

Langabeziaren arazoari aurre egiteko Gai Sozio-ekonomiko, Enplegu, Merkataritza eta Kontsumo batzorde informatiboa sortzea erabaki zuten Bildu, Plataforma eta EAJk astearteko ohiko udal batzarrean, Enplegu Mahaia sortzeko eskatuz, PSE-EEK aurkeztu zuen mozioari erantzunez.

Aipatutako hiru alderdi horiek, aldiz, egokiago ikusi dute orain arteko batzordeaz baliatzea eta konkretuki sozio-ekonomia arloko gaiak jorratzeko Batzorde Informatibo hori sortzea, orain artean abian zen Gizarte Zerbitzuak enpleguaren arloari kontsumo eta komertzio arloak batuz.

Batzorde horren ardura-dun enplegu dinamizatzailea izendatu zuten gainera, eta administrari laguntzaile bat izango du. Sozioekonomia, Enplegu, Merkataritza eta Kontsumo batzorde horretan tokia izango dute interesa duten elkarte guztiek, batez ere jardura sozioekonomikoekin lotura dutenek eta Lanbideren parte hartzea eskatuko dute.

PP proposamen honen alde azaldu zen, baina Enplegu Mahaia sortzea egokiagoa dela uste duenez aurka bozkatu zuen Vanessa Velezek.

PSE-EEKo Jesus Zaballos ordezkariak salatu zuen bere proposamenei beti alternati-



Sahararren independentzia eskaera eta marokoarren erasoen salaketarekin bat egin zuten Lasarte-Oriako zinegotzietan.

boa aurkezten diela Bilduk, haueri gutxi inporta zaiela langabezia, hori herriari eta bere alderdiari adarra jotzea dela eta, beraz, PSE-EEK ere mozio alternatiboaren aurka bozkatu zuten. Abokatu gabeko Marisa Zubiri zinegotzia abstentitu egin zen.

Oposizio mediatikoa

Bilduk azaldu zuenez, egokiagoa ikusi dute Batzorde Informatiboa sortu, nahi duten guztiei ireki eta parte hartzea eskatzea, eta, ez, dagoenaren mahai paralelo bat sortu.

Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuen sailaren arduradunak salatu zuen oposizio mediatikoa egiten duela PSE-EEK: "Batzordeetara ez dute lan egiteko eta hitz egiteko proposamenik eramaten, denak udal batzarrean edo kazetarien aurrean egiten ditu. 2012ko urtariletik ari gara gaia jorratzen eta 0 ekarpen egin ditu Zaballosek".

EAJko Estitxu Alkorta esan zuenez, "gehiago komentatu gaitu jada martxan dagoen egituraz baliatzeak eta ez hainbeste berri bat sortzeak".

Sahararekin bat

Era berean, Euskal Herriko lagunak mendebaldeko Saharakoekin bat taldearen mozioaren alde bozkatu zuten Bildu, PSE, EAJ eta PPK, eta abstentitu egin ziren Marisa Zubiri eta Plataformako Juanjo Castro ordezkaria.

Udal batzarrak bat egin zuen bederatzi eskaera dituen proposamenarekin. Saharan gertatzen diren atxiloketa, tortura eta tratu txarrak, bortxaketak, desagarkerak, deportazioak, manifestazioa eskubidearen zapaketa eta oro har giza eskubideen aurkako erasoak salatu eta gaitseztea onartu zuten Udalak.

Era berean, beste hainbat eskaera onartu ziren: Saharako biztanleak bitan banatzen dituen 2.600 kilometroko

harrisia eraisteko, Marokori armen salmenta debekatzeko, Saharako baliabide natural eta arrantza bankuen ustiaketa uzteko, sahararren autodeterminazioarako eta independentziarako eskubidea aitortzeko, eta preso politiko saharar guztiak askatzeko.

Gainera Udalak bat egin zuen asteartean Saharar Errepublikari Arabiar Demokratikorekin aldarrikapenaren urteurrenean, otsailaren 27an, arratsaldeko 19:30ean, Udaltxe aurrean, "Maroko Sahararik at autodeterminazioa eta independentzia Mendebaldeko Sahararentzat" lempaen burutuko den elkarretatzeari eta egun horretan udaltxean Mendebaldeko Saharako bandera zintzilikatzea adostu du.

Lasarte-Oria alzheimerrekin bat egiten duen hiria izendatzeko mozioaren alde bozkatu dute zinegotzi guztiek abstentitu egin ziren Bilduko ordezkariak izan ezik.

"Piztu Itxaropena" euskal laguntzakarabana Saharar kanpamentuetara

Sahararen aldeko IX. "Piztu Itxaropena" Euskal Karabana bihar abiatuko da Bilbotik Tinduf-eko errefuxiaruen kanpamentuetara.

Karabana hori Saharako herriak pairatzen duen elikagai eskasia nolabait arintzen saiatzeko helburuarekin sortu zen duela bederatzi urte. Honela, saharar kanpamentuetan behar beharrezko dituzten produktuz beterik joango dira aurtur ere karabana-kamioiak.

Horietan joango dira, Lasarte-Orian bildutako tona bat produktu ere, gehienak jatekoak.

"Otsailak 27" Euskadi-Sahara Koordinadorak antolatutako karabanan 12 ibilgailu abiatuko dira Saharar errefu-



Lasarte-Orian ia tona bat produktu bildu dira Saharara bidaltzeko.

xiatuen kanpamentuetara: sei trailer, hiru ardadun kargako bi kamioi, lur orotako garabikamioi bat, bi autobus eta anbulantzia-furgoneta bat.

Bertan Saharar Ilargi Erdi Gorria arduratuko da errefuxiatuen artean elikagaiak kudeatu eta banatzeaz.

Eskerrak ematea

Gauzak honela, Lasarteko Saharar Herrien Laguna Elkarrekin eskerrak eman nahi dizkie Lasarte Oriako bizilagunei, "zuei esker ia tona bat elikagai jaso ditugu. Mila esker parte hartzeagatik".



KULTURA

Kukuka-ko "Sahara. Isiltasunaren ahotsak" antzerkia Azkoitian

Kukuka Antzerki taldeko "Sahara. Isiltasunaren ahotsak" antzerkia eskainiko dute bihar 20:30ean Azkoitiko Baztartzeko antzerkian. Sarrera 3 eurotako ia izango da.

Koldarrak Azkoitiko antzerki taldeak EHAZEK, Xirikatzen kultur mahaia eta Azkoitiko Udalaren laguntzaz, hilabeteko euskarazko antzerki saioa bat antolatuko du eta honen barruan, "Sahara. Isiltasunaren ahotsak" antzerkia antolatu du.

Antzerkian Sahararrei ahotsa emango zaie eta 36 urte hauetan errefuxiatuen kanpamentuetan bizi izan dituzten egoera ezberdinak erakusten dira.

Gidoia eta lana prestatzeko Gurutze Irizar "Fatimetu"-ren eta, batez ere, herrian bizi den Ailem Etleimid saharararen laguntza izan zuten.

Leitza inguruak ezagutzen

► Oinatz taldearen hurrengo irteera otsailaren 24an izango da ► Naturan gizakiaren eragina ikusiko dute, Leitzalarrea eta "Peru-Harria. Harriaren museo"-ko bisitekin

Leitza inguruan, Leitzalarrea, Monumentu naturala den Izaetako izaidia edo "Peru-Harri. Harriaren museo" daude. Leku hauek bisitatu eta bertako bitxikeriak eta historia ezagutzeko asmoz, Oinatz taldeko lagunek otsailaren 24ean, igandea, irteera antolatuko dute.

Nerea EIZAGIRRE

Euskal Herriko txoko ezberdinetako paraje eta historia ezagutu dute dagoeneko Oinatz taldeko lagunek. Baina hain da aberatsa gure lurraldea oraindik ere badirela hainbat leku ezagutzeko.

Oraingoan, Nafarroa aldeara egingo dute txangoa otsailaren 24an, igandean hain zuzen ere, Leitza. Bertan Leitzalarrea eta "Peru-Harria. Harriaren museo" bisitatuko dituzte.

Oinatzeko lagunek azaldu digutenez, irteera ordua 10:00etan izango da Jalgi Kafe-Antzoki aurrean. Kotxeak hartu eta Leitza egingo dute.

Azternak eta izaidia

Bertan Leitzalarrea igo eta bi orduko ibilbidea egingo da oinez.

Honetan Leitzalarrean han-hemenka dauden monumentu megalitikoak ikusiko dituzte.

Oinatzeko lagunek azaldu dutenez, "mendeetan zehar bertako mehatzeak garrantzitsuak izan ziren, eta orduko

hondakinen eta burdinolen aztarna ugari ikusi daitezke bidean."

Honetaz gain, Izaieta izaidia edo haritzia ezagutzeko aukera ere izango dute.

Izaetako izaidia legez Monumentu Naturala da eta babestua dago. Bertan ia 40 m altuko izei zuri (Abies alba) ikusgarriak bisita daitezke.

1832. urtean landatutakoa da izaidia. Izan ere, garai hartan herritarrek botatzen zuten zuhaitz bakoitzeko 10 landatu behar izaten zituzten.

Gaur egun, itxia dago eta Leitzaldean hazten diren 37 espezie biltzeko lorategi botanikoa da; gune horretan ale bakoitzak bere azalpen-txartela dauka.

Bueltaxka egin ostean, indarrak berreskuratzeko Leitza jaitzi eta bertako tabernan bazkalduko da.

Oinatzeko lagunek jakitera eman dutenez, bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du.

Harriaren museo

Arratsaldean, berriz, "Peru-harria. Harriaren museo"-ra bisita egingo da.

Hau museo berezia da. Iñaki Perurenak eta bere



Leitza gertu dagoen "Peru-Harria. Harriaren museo" bisitatuko dute Oinatz taldeko lagunek.

EUSKONEWS

semeak Inaxiok sortutako museo da. Hauek artisautza-ereduari jarraikiz, historia eta kultura kontatzen dute harriaren bitartez.

Museoa zati ezberdinetan dago banatua.

Batetik "Gorritenea" base-rra familiarra dago. Etxeak dauzkan 3 solairuetan herri kirolaren historia ezagutu daiteke. Aro grekotik gaur egunerako informazioa eta bitxikeriak bildu dituzte bertan.

Eta noski, Perurenatarren argazkiak, lehiaketetan erabiltako jantziak, oroigarriak, eta, batez ere, haiek erabilitako harriak daude. Harri asko

eta asko, hainbat forma, tamaina eta pisutakoak.

Era berean, bideoak edo elementu ludiko didaktikoak aurkitu ahal dira haurrek harriari buruzko gauza gehiago ikasteko.

Bestetik, baso-inguruan zehar tamaina handiko eskulturak daude, esaterako, harri-jasotzaile erraldoia, 8 metro luze dena eta 40 tonako pisua duena.

Eta honetaz gain, oihartzuna dela-eta erantzuten duten koloretako harriak edo garai bateko gisu-labea eta jentilen bizitokia izan zen kobazulo bat ere ikusi daitezke harri-

ren parke magiko horretan zehar egingako ibilbidean.

Museorako haurren sarre-ak 3 euro balio ditu eta helduen kasuan, 4 euro izango dira. Hauek bertan ordainduko direla aipatu digute Oinatz taldekoak.

Izena ematea

Irteeran parte hartu nahi duten herritarrek otsailaren 21a, osteguna baino lehen eman behar dute izena Ttakun Kultur elkarte bulegoan. Gogoratu, bakoitzak bere bazkaria eraman behar du eta museoko sarrera bertan ordainduko da.

Ederki gozatzeko aukerak Amaraun eta Gazte klubaren eskutik

TXINTXARRI

Amaraun Ludoteka eta Gazte Klubeko lagunek asteburuetan lagunekin ongi pasatzeko aukera paregabeak izango dituzte hurrengo asteetan.

Amaraun Ludotekako haurrek, zehazki HH5-LH1 eta LH2 mailakoek "Amaraun Laborategi eroa!!!" tailerra izango dute otsaila eta martxo bitartean.

Bost saioz osatuko da tailerra eta honetan esperimendu ugari egingo dituzte haurrek. "Naturarekin zer ikusia duten esperimenduak izango dira nagusi, modu errazean koloreak edo argia nola sortu daitezkeen ikusiko dute haurrek," azaldu digute laborategiko antolatzaileek.

Saioak asteazkenetan izango dira Amaraun Ludotekan, hain zuzen ere, otsailaren 20 eta 27an, martxoaren 6an, 13an eta 20ean.

Ordutegiari dagokionez, 17:45etik 19:15era bitartean izango dira.

Laborategi berezi honetako matrikulak 12 euro balio ditu Ttakuneko bazkideentzat eta bazkide ez direnek berriz, 15 euro ordaindu behar dute.

Txuri Urdinera irteera

Gazte Klubeko lagunek, berriz, Gazteburu berezia izango dute otsailaren 23an, Txuri Urdinera irteera.

Irteera Zumaburuko autobus paradak izango da 16:00etan.

Txuri Urdin izotz jauregiaren arratsalde pasa ederra egin ostean, 19:30ean buelta-



Ederki gozatzen dute gaztetxoek Txuri-Urdin izotz jauregiaren.

tuko dira gaztetxoak Lasarte-Oriara.

Haurrek merienda, galtzerdi lodiak eta eskularriak eraman behar dituzte txangora.

Arratsalde pasa honen prezioa 12 eurotako da Ttakuneko bazkideentzat edo 15 eurotako bazkide ez direnentzat.

Izena emateak

Izena emateko laborategiaren kasuan Ttakuneko bulegoan, Geltoki kalea 4, edo egunean bertan Amaraun Ludotekan egin dezakete.

Gazte klubeko irteerari dagokionez, Ttakuneko bulegoan, aisia@ttakun.com helbide elektronikorain edo 943 371 448 telefonoan egin dezakete izena ematea.

Bi ekintzak ordaintzeko aukera ezberdinak daude. Ttakuneko bulegoan txartelarekin, eskudirutan edo 2101 0048 25 0010089696 kutxako zenbakian transferentzia eginga.

Informazio gehiago eskuratu nahi dutenek, bulegora, aisia@ttakun.com helbide elektronikora edo 943 371 448 telefono zenbakira jo dezakete.

Kirola ikusmenetik haratago

► Enara Fernandezek Kataluniako txapelketa irabazi zuen Slalom Gigante proban eta bigarren postua lortu zuen slalomean ► Berarekin gida lanetan Iraitz Etxarri herritar gaztea aritzen da

Enara Fernandez Campo 11 urteko gaztea primeran dabil eski txapelketetan. Iaz hasi zen lehiatzen gaztetxoak IK- ONCE taldearekin. Enarak oraindik oso gutxi bada ere, zerbait ikusten du eta B2 taldean lehiatzen da, izan ere, ikusmen graduen arabera hiru multzotan banatzen dira lehiak. Bere gida herrikoa da ere, Iraitz Etxarri. Biak ondo moldatzen dira eta aurreko astean Kataluniako txapelketa irabazi zuten. Asteburu honetan Ezcaray-n izango dira lehiatzen.

Maider AZURMENDI

Enara 8 urterekin hasi zen eskiatzen. ONCE-ko haur taldearekin egindako irteera batean asko gustatu zitzaion kirola eta hor sortu zitzaion zaletasuna bere amak aipatzen duenez.

Egun entrentatzeko irteera ezberdinak egiten ditu Formigal, Astun edota Ezcaray-ra bere gidarekin batera.

Entrentatzeko bidai hauek bere taldeko beste gaztetxo batzuekin egoten da eta batez ere, Kirol Egokituaren Euskal Federazioko bere koordinatzailearekin Joseba Gonzalezekin. Berak laguntzen dio Enarari prestaketan baita Iraitz Etxarri bere gidarekin izan beharreko harreman eta elkarlanean ere.

Horretaz gain, bi asteko kontzentrazioa deitzen dute Enara Espainiako bere mailako kirolariek.

Honakoa itsuentzako kirol federazioak sustatuta da. Udan Xanadú Madrilen egiten dute aste bete eta bestea La Molinan Gabonetako oporraldian izaten da.

Egonaldi berezi hauek entrentatzaile izaten dute Jordi Carbonell Espainiako selekzioaren entrentatzailea, hain zuzen.

Modalidade ezberdinak

Enara eski alpinon, Slalom eta Slalom Gigante-n aritzen da lehiatzen. Azken honetan lortu zuen lehen postua aurreko asteburuan.

Infantil mailan aritzen da 8-13 urte artekoen eta aipatu bezala bere ikusmenaren arabera multzoan.

“B1 multzoan ezer ikusten ez dutenak sartzen dira, B2an, Enararena, esku baten forma bereiztu arteko ikusmen gradua dutenak, 5 grado arteko ikuseremua eta azkenik, B3 taldean, 5 eta 20 grado arteko ikuseremua dutenak”.

Enara FEDC kopa zirkuituan parte hartzen ari da, hiru txapelketa dira eta laugarrena Espainiako izaten da.

Hiru txapelketa horietan ere Kataluniako, Madrilgo eta Euskadiko txapelketak jokatzen dira.

Gidarekin lana oinarritzkoa

Enarak gida baten beharra du lehiatzeko garaian eta Mari Carmen Campok azaldu moduan oinarritzkoa da honen lana “Iraitzek ibilbidea markatzen dio Enarari, aurretik joaten da eta zeinu eta mugimendu ezberdinak eginez ibilbidea dauden traba, edota marken berri ematen dio Enarari”.



Enara Fernandez eta Iraitz Etxarri podiumean bere dominekin aurreko astean.

FERNANDEZ FAMILIA

Zeinuak erabiltzeaz gain, kaskoetan interkomunikadoreak dituzte eta hauek aukera ematen diete jaitziera nola egin eta zein teknika erabili adosteko baita abiadura zein izan behar den erabakitzeko.

Iraitz aurrean joaten denez, atzera begiratu behar du askotan Enara ondo doala ikusteko, bidetik ez dela atera edota oso atzean ez dela geratzen ari ziurtatzeko “ez da lan erraza baina oso ondo ulertzen diote elkarri eta pistetan hori ikusten da”.

Iraitzekin lehenengo urtea da hau. Iaz Joaquín Aranburu-

rekin ibili zen lehiatzen eta emaitza bikainak lortu zituzten ere, bost urrezko eta zilarrezko domina batekin sailkapeneko lehen postuan izan zen.

Iraitzekin lehenengo aldiz aurreko astean lehiatu zen eta bientzat oso pozgarria izan zen Port Ainé-n lortutako Kataluniako txapelketako lehen postua. Aipatzekoa da gidak ere dominak eskuratzen dituela eskiatzailearekin batera eta deskalifikatua izan daitekeela berdin, “ate bat saltatzeagatik edota bi ate baino gehiagoko distantzia hartzeagatik bere eskiatzailearekiko beraz ez da lan erraza”.

Eskiatzaileak konfidantza osoa jarri behar du bere gidarengan eta harreman hori asko landu behar dute, oso estua behar du izan.

Ezcaray-n asteburuan

Enararentzat denboraldi hasiera oso ona izan da. Urrezko domina eskuratu zuen Gigante modalitatean eta zilarrezkoa Slalomean. Honi esker lehenengo postuan da Berta Lopezekin puntutan berdinduta.

Berta gainera Enararen lagun ona da “txapelketetan emaitza onak nahi dituzte baina lagun berriak egitea eta disfrutatzeari garrantzia handia ematen diogu etxean”.

Asteburuan Ezcaray-n emaitza onak lortzea oso posi-

ble ikusten dute “baina helmugara iritsi arte ezin jakin, lehiari edozer gerta liteke”.

Erronka

Eskia Enararentzat kirola baino gehiago da. Gaztetxoak ikusmen asko galdu du azken urtean “nahiko bat-batean gertatu zait” eta bere zereginen artean braille-a eta bastoia erabiltzen ikastea daude egun. “Bastoiarena ez zaio ezer gusatzatzen baina beharrezkoa du” ahalegin handia egiten ari da.

Hau dela eta astean zehar eskolaz kanpoko bere ordu gehienak ikasketa prozesu honetan ematen ditu. Hala ere, Gazte klubera joaten da eskolako bere lagunekin.

“Eskian ematen dituen orduak eta emaitza onak asko animatzen dute eta jendeak zoriontzen duela ikusita bere autoestimua gora egiten du nabarmen eta etxekoentzat garrantzitsua da Enara zoriontsu ikustea”. Txapelketa guztietara laguntzen dute eta bere jarraitzaile sutsuenak dira Mari Carmen Campok azaldu moduan.

Aurten sailkapeneko lehenengo postua berritzaile esku artean du herritarrek eta datoz asteetan jokatuko dituzten txapelketak, martxoaren 17an izango da Espainiako.

Asteburuan bigarren txapelketa eskuratzeko lanetan izango dira Ezcaray-n.



Enara eta Iraitz entrentamendu saioa egiten lehiatzen hasi baino lehen Port Ainé-n aurreko asteburuan. FERNANDEZ FAMILIA

ERRUGBIA.-



Errugbi eskolako kideak eta Javi Mendo babeslea Isabel Diazzi produktuak ematen.

Errugbi eskolako saskia Berpizturentzat

Beltzak Ostadar Errugbi eskolako Iñaki Yurramendi eta Manu Pelaezek...

Errugbi eskolak abenduaren 21ean, Santo Tomas eguean zozketatutako saskiak ez du irabazlerik izan.

Gosarirako gaiak

“Berpiztu elkartearekin harremanetan jarri eta haiek herriko familietako haurrek gosaldutako ahal izateko kakaoa eta gaitetak behar zituztela esan ziguten,” azaldu ziguten astehelenean Errugbi eskolako kideak.

Bezpiiztu elkarteko kideak Isabel Diazek eskerrak eman nahi izan zizkien Beltzak Errugbi eskolako kide eta babeslei elkarreaz gogoratu eta produktuak emateagatik.

SAMBOA.-

Sagasti Espainiako txapelkun

LOKEk bost domina ekarri ditu Samboko txapelketatik

Espainiako Sambo eta Borroka txapelketa izan zen lehengo asteburuaran, Xixonen. Honetan Asier Sagastik urrezko domina eskuratu zuen. Baina honetaz gain, txapelkun orde bat eta hiru brontzeko domina ere lortu zituzten LOKEko gazteek.

Nerea EIZAGIRRE

Sambo modalitateko Espainiako txapelketa izan zen otsailaren 9 eta 10ean Xixonen. Senior, zein junior mailan Hondarribiko Ama Guadalupekoa talderekin batera LOKEko bost lehiakide izan ziren.

Ederki borrokatu zuten eta guztiak garaikurren bat eraman zuten etxera. “Asteburu polita izan da guretzako” aipatu digu Gorka Aristegi entrenatzaileak.



Asier Sagasti podiumeko maila gorenean izan zen Espainiako txapelketan. GORKA ARISTEGI

ko hiru domina lortu zituzten Gorka Aristegiren mutilek, bi junior mailan. Gauzak honela, Asier Sagasti herritarrek bere denboraldi paregabeari jarraiki, Espainiako txapelkun titulua eskuratu zuen 90 kiloko mailan.

Amaia Curiel zilarrezko postuan geratu zen borroka bat irabazi eta beste bat galdu osten.

74 kiloko mailan, Esteban Martinez hirugarren izan zen. Estebanek final erdietako borrokan gerora irabazte

izango zenaren aurka galdu zuen.

Eta azkenik, Josu Olmosek 5. postuan amaitu zuen senior mailako lehia.

Baina ez zen esku hutsik bueltatu gaztea. Izan ere junior mailako txapelketan ere parte hartu eta honetan brontzeko domina lortu zuen Josuk, 60 kiloko mailan.

Era berean, Fermin Baldak brontzeko domina eskuratu zuen, 70 kiloko mailan. Honek final erdia galdu eta 3. postuko lehian irabazi zuen.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 16 Trintxer, Trintxerpe, 09:00etan Trintxerpe Azkuene-Ostadar I. Kadetea, kopa Michelin, 10:30ean Texas Lasartearra-Antigua Luberrri I. Kadetea, kopa Michelin, 12:00etan Ostadar-Internacional Infantil Txiki, kopa Michelin, 14:00etan Ostadar-Sporting de Herrera Infantil Ohorezko maila, kopa Michelin, 15:30ean Ostadar-Urola Jubenilen Ohorezko maila San Jose Obrero, Iruen, 15:30ean Dunboa Eguzki-Ostadar I. Erregionala, igoera Michelin, 17:15ean Ostadar-Real Union Erregional Ohorezko maila Zubieta, Donostia, 17:30ean Danena-Texas Lasartearra I. Erregionala, kopa

Igandea 17 Martutene, Donostia, 09:00etan Amara Berri-Ostadar I. Infantila Michelin, 10:00etan Ostadar-Intxaurdi Emakumezkoen Liga Michelin, 11:45ean Ostadar-Bergara I. Jubenila, kopa

Olaranbe, Gaisteiz, 11:30ean Orlarizu-Ostadar Kadeteen Ohorezko maila, Euskal Liga Zubieta, Donostia, 10:15ean Ostadar-Urola Alebina

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 15 HERRIKO TXAPELKETA Kirol gunea, areto-futboleko kantxa 19:30ean, ISU Leihok-Buenelexa taberna 20:20ean, Trumoi taberna-Indaux 21:10ean, Albariñeria Vertical-Hzkiña taberna Larunbata 16 HERRIKO TXAPELKETA Kirol gunea, areto-futboleko kantxa 10:30ean, Ilargi taberna-Urdaneta H.K. 11:30ean, Balerdi harategia- Oria kristaldegia 12:30ean, Izarra bixitegia-El Punto taberna 13:30ean, Txindoki tberna-Ana eta Soi ileapain.

Usabal kirolegia, Tolosa, 16:00etan Bide-Bide Laskorain-ISU Leihok Gipuzkaoko Liga

SASKIBALOA

Larunbata 16 Manteo kirolegia, Donostia, 10:30ean Bera Bera Peñaflorida B-Landaberri Infantil txiki neskak, parthartzeta

Chaminade Kirolegia, Donostia, 12:00etan SUMMA Aldapeta-Ostadar Kadete neskak, parthartzeta

PILOTA

Ostirala 15 Beko Errota, Lezo, 19:15ean Allerrul-Intza Eskuz binaka, infantilak Larunbata 16 Kirol guneo pilotalekua, 16:00etan Intza-Zestoa Eskuz binaka, II. kadetea Kirol guneo pilotalekua, 16:00etan Intza-Azkoitia Eskuz binaka, I. jubenila Kirol guneo pilotalekua, 16:00etan Intza-Aurrera-Saiaz 2 Eskuz binaka, I. jubenila

IGERIKETA

Larunbata 16 Iruña, 10:00etan eta 16:00etan Buruntzaldea IKT-ko junior, promesa eta absolutuek Neguko Euskal Herriko Txapelketa dute. Ordizia, 16:00etan Buruntzaldea IKT-ko alebin eta benjaminek Kirol Zehaztasun Ligako hirugarren jardunaldia dute.

Igandea 17 Iruña, 10:00etan eta 16:00etan Buruntzaldea IKT-ko junior, promesa eta absolutuek Neguko Euskal Herriko Txapelketa dute.

ATLETISMOA

Larunbata 16 Hernani, 10:30ean Landaberri, Sasoea-Zumaburu eta Lasarte IB ikastetxeetako alebin eta infantilek pistako eskolarteko lehiaketako jardunaldia dute. Antonio Elorza belodromoa, Donostia, 10:00ak eta 16:00ak LOKEko atletak kadete, jubenil eta junior mailako Euskadiko txapelketan. Zumaia, 17:00etan Herriko hainbat atleta Zumaiaiko herri lasterketan parte hartuko dute.

Igandea 17 Antzuola, 10:30ean Herriko hainbat atletek AM8-Antzuolako 8 miliak mendit lasterketan parte hartuko dute.

ERRUGBIA

Ostirala 15 Kirol gunea, 18:30ean Beltzak Ostadar Jalei errugbi

eskolako maila guztietako gazteek entrenamendua izango dute.

Igandea 17 Kirol gunea, 09:00etan Beltzak Ostadar Jalei errugbi eskolako alebin eta benjaminen entrenamendua. OHARRA: Kirola egiteko zapatilak eraman behar dituzte. Iruen, 10:00etan Beltzak Ostadar taldeko eskolarteko infantilek torneo dute Atl. San Sebastian, Eibar eta Iruen aurka. Asti, Zarautz, 11:00etan Beltzak Ostadar Gure Etxea-Hernani Infantil Federatuk

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 23 Atsokabar parkea, 11:00etan Bazpi Txirrindularitza eskolako kideek alebin eta infantil mailako haurrek in saioa egingo dute.

BOLA-JOKOA

Igandea 17 Idiazabal, 10:00etan eta 16:30ean Ostadar SKT-ko bola-joko taldeak bikotekako txapelketako azken jardunaldia jokatuko du.

Nerea Gereño Sukaldaritzako tailerreko irakaslea

"Elikatzeko beste era batzuk daude"

■ Otordu makrobiotikoa prestatzeko ikastaroa antolatuko du Ttakunek ■ Nerea Gereño bi ikastaro gidatuko ditu, bakoitzean bi orduko lau saio ■ Makrobiotika bizitzeko era da

Bi makrobiotika ikastaroa emango ditu Nerea Gereño herritarrek, lehenengoa otsailaren 22an, martxoaren 1 eta 8an eta bigarrena apirilaren 12, 19 eta 26an. Gero maiatzaren 3an denek elkarrekin egingo dute saioa eta afaria. Ikastaroak EPA-HHI-ko sukaldean egingo dira, Osasun zentroko azken solairuan. Makrobiotikari buruzko jakin-min handia dago herrian, askok eman dute ikastaroan izena eta erantzuna izan dute.



Egoitz Garro adituak Lasarte-Orian emandako hitzaldietan argi ikusi da herritarrek makrobiotikarekiko duten interesa. Irudia, Villa Mirentxun eman zuten hitzaldikoa da.

Jon ALTUNA IZA

Takun elkarteak antolatuta, makrobiotika sukaldaritzako tailerra emango du Nerea Gereño herritarrek, otsailaren 22an hasita, lau ostiraletan, besteak beste, urtean zehar jan daitezkeen barazki ezberdinak, oke-laren alternatiba diren proteina begetalak eta postreak prestatzeko erakutsiko du Gereño. Interesatuak Ttakunen eman dezakete izena otsailaren 22ra bitartean.

Zer dela eta antolatu duzue makrobiotika tailerra?

Egoitz Garro aditua astero etortzen da Orbela belar-dendara kontsulta pasatzera, azken hiru urtetan hitzaldiak eman ditu herrian eta horrelako ikastaro baten demanda badagoela ikusita, pentsatu genuen Ttakunen ikastaroa antolatzea.

Duela 12 urte makrobiotikan hasi nintzenetik gaur egunera asko aldatu da egoera. Lehen gaixotasun edo arazoren bat zuenak egiten zuten, ez zegoen hain zabaldua. Gaur egun jendea jakitun da, elikatzeko beste era batzuk ere badaudela. Beraz interesa handia zen, eskatu egin dute ikastaroa, ni emateko prest nongoen eta Ttakunekin batera antolatu dugu.

Nolako ikastaroa izango da?

Hiru edo lau ostiraletan bi orduko saioa, Ttakunek antolatzen dituen beste ikastaroetan bezala, beraz makrobiotikaren zertzelada bat izango da, bi ordutan ez dago eta gauza handirik egiterik. Dena den, hiruzpalau astetan jendeak hartuko ditu zantzu batzuek.

Klase praktikoak izango dira?

Bai praktikoak, ehunetik ehun. Hiru saio horrela banatu ditugu. Lehenengoa urtaroen arabera izango da, ez da eta berdin jaten gaurko hotzarekin eta abuztuko 40 graduekin. Logikoa da udan edo neguan jateko era desberdina izatea, beraz lau urtarotako barazkiak oinarri hartuta, lau barazki prestatuko ditugu, lau era ezberdinetara. Zerbait erraza izan behar du bi ordutan egiteko.

Bigarren saioan proteina begetalak ezagutuko ditugu: tofu, tenpeh eta seitan-arekin zerbait prestatuko dugu.

Hirugarrenean postreak egingo ditugu. Gaur egun azukrea ia zainetatik ere sartzen dugu, eta jendeak ikusi dezala egin daitezkeela azukrerik gabeko postre goxoa.

Azken saioa, ikastarorako izena ematen dutenen menpe izango da, nahi bada afari bat prestatu daiteke edo eurei interesatzen zaien. Erabaki gabe dago momentuz.

Aspalditik al zara makrobiotika? Eta zergatik?

Gu Maddi alaba zaharrena jaio zenean hasi ginen interesatzen. Amatasunak mugitzen dizkizun gauza askoren artean niri elikadura mugitu zidan. Umeak indartzeko elikadurari garrantzia eman genion. Pixkanaka hasi ginen ezagutzen.

.....
"Makrobiotika asko zabaldu da. Elikadura mota hau gertuago dago, gure aiton amonek jaten zutenetik, gaur egun, jaten dugunetik baino"

Zeintzuk dira sukaldaritzan honen osagai nagusiak?

Barazkiak, zerealak, algak, lekaleak eta noizean behin baita haragia ere. Garaian garaikoa, biologikoa, integrala eta ekoizpen ekologikokoa izatea ere garrantzitsua da. Elikadura hau gertuago dago gure aiton amonek jaten zutenetik, gaur egun jaten dugunetik baino.

Ez da beraz ezer debekaturik...

Debekatua? Ez noski. Maiztasunean dago kontua. Gure ahoko hortzak, gure gorputzak behar dituen elikadurak mutxikatzeak daude prestatuta. 16 hagin eta 4 letagin ditugu, beraz, zereal eta barazki askoz gehiago behar ditugu okela baino, proportzioari begiratzen badiogu. Baina, bai, noizean behin arraina eta oilaskoa jateak ez dakar kalterik. Beti ere osasunean baldin bagoaude.

Batzuk kontrakoa esan arren, behar duguna berdin berdin hartzen dugu, ezta?

Bai noski. Behar ditugun osagaiak beste iturri batzuetatik hartzea da kontua. Adibide modura kaltzioa har genezake.

.....
"Orain, etxeko frigorifikoa zer dagoen ikusi eta dagoenarekin prestatzen dut zerbait. Urteekin ikasi egiten da eta, jada, asko inprobisatzen dut"

direnak eta ez da erraza. Lehen esan bezala malguak izan behar dugu, bestela liskar asko sor daitezke.

Aldaketak poliki eta mimo handiz egin behar dira. Gauza txikiekin hasi: esnea ordezkatuz, haragi gorria beharrean oilaskoa erabiliz, elikagai integralak sartuz...

Osasungarria da eta sendatzeko ere erabili ohi dute...

Bai, badakit terapia bezala erabiltzen dela. Elikadura mota honen berri horregatik, gaixotasunarengatik, izan duten asko ezagutzen ditut. Nik egin nuen lehenengo ikastaroan, duela 12 urte, 12 pertsona ginen eta ezer ez zuten bakarri ni nintzen.

Norbaitekin ikasi al dituzue errezetak ala zure kontura?

Orain, jada, etxeko frigorifikoa ireki, zer dagoen ikusi eta dagoenarekin prestatzen dut. Hasieran ez, baina urteen poderioz ikasi egiten da. Hainbeste urteren ondoren asko inprobisatzen dut.

Ikastaro asko egin al duzu?

Bai asko jaso ditut, hasieran asko engantxatu ninduen. Eta eman ere, asko ez, baina batzuk eman ditut, besteak beste Hernani eta Astigarragako AEKn.

Beti gauza berriak ikasten...

Bai, beti ikasten. Orain dela 10 urteko liburu bat hartu eta beti egongo da zerbait ikasteko.

Era honetara gauza goxoak egin daitezke?

Oso gauza goxoak egin daitezke. Bai.

Esnekirik hartu gabe ere lor daitezke beharrezko duguna, barazki berde eta sesamo hazietatik, esaterako. Ez dut inolako gabeziarik ikusten elikadura mota honetan. Nik etxean dut honen adibide nabariena.

Haurrentzat ere osasungarria al da jateko modu hau?

Denontzat da osasungarria, haurrentzat, helduentzat, amaberrientzat... denontzat. Egia da 70 urteko pertsona baten beharrek eta hiru urteko ume batenak ez direla berdina, beraz elikadura ere desberdina da gure bizitzako garai ezberdinetan.

Haurren elikadurari dagokionez ez diot eragozpenik ikusten, alderantziz, gaur egun azukredun gauza gehiegi jaten dituztela esango nuke.

Ume baten osasuna duen energia nabaritzen da eta energia iturri osasungarriena elikadura da maitasunarekin batera. Hori ere ez da ahaztu behar. Beraz noizean behin txokolata ematea ere onuragarri da, nola ez ba!!! Zorroztasunak umearekin ez du zentzurik, malguak izatea osasuntsuagoa dela iruditzen zait.

Erraz ohitzen al dira haurrak horrela jatera?

Nireak elikadura mota honetan hazi dira jaio direnetik, baina ezagutzen ditut umeak koskor-tu ondoren probatzen hasi